BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO



II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Mungiako Udala

**2024-2026rako diru-laguntzen Plan estrategikoaren onarpena**

Udalbatzak, 2024ko ekainaren 28ko Ohiko Osoko Bilkura honako hau erabagi egan:

1. 2024-2026rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea.
2. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Diru-laguntzen Plana osorik argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluaren arabera, Toki Gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 53/2003 Legeak aldatua.
3. Erabaki honen berri ematea dagokien sailei, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzaten.

Mungian, 2024ko uztailaren 11n.—Alkatea, Alaitz Erkoreka Baraizarra

eek: BAO-2024a142-(II-3905)

**MUNGIAKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEN 2024-2026KO PLAN ESTRATEGIKOA**

ATARIKOA

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1. artikuluak oinarrizko izaera du, eta Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko betebeharra ezartzen die diru-laguntzak banatu nahi dituzten udal guztiei

38/2003 Legea urrats bat gehiago da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Gardentasuna da lege horren printzipioetako bat, eta, hartan artikulatzen diren askotariko tresnekin batera, zuzeneko eragina du diru-laguntzen gastu publikoa kudeatzeko eraginkortasun eta eragingarritasunean.

Alderdi horretatik, diru-laguntzei buruzko zenbat eta informazio gehiago, orduan eta errazago ezabatu ahal izango dira merkatuari eragin liezaioketen distortsioak eta interferentziak; horrekin batera, areagotu egingo da administrazio publikoen jardueren osagarritasuna eta koherentzia, eta horrek aukera emango du bikoizketak edo gainjartzeak saihesteko.

Eraginkortasuna areagotzeko, zera aurreikusten du Legeak, hain zuzen: Udalak diru-laguntzak sortu aurretik edo lankidetza hitzarmenak egin aurretik urte anitzerako Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat eratzea, Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoarekin bat etorrita.

Xedapen hori betez, bada, Udal honek Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu du, jarraian aipatzen diren artikuluak bilduta.

I. KAPITULUA

**HELBURU OROKORRAK**

**Lehenengoa**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren legezko agindua betetzea, 8.1. artikuluari dagokionez. Zera dio, hain zuzen, artikulu horrek:

«Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio-iturriak. Nolanahi ere, Plana burutzeko ezinbestekoa izango da aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzea.»

Lege hori garatzeko, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua onartu zen, zeinaren bidez onartzen baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia. Diru-laguntzei buruzko honako xedapen komun hauek ezartzen ditu arautegi horrek:

10. artikulua.—*Printzipio gidariak*

1. Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan adierazitako diru-laguntzen plan estrategikoek erabilera publiko edo interes sozialeko jarduerei edo xede publikoak sustatzeko jarduerei dagozkien politika publikoak planifikatzeko tresna modura jardungo dute.

2. Estatuko Administrazio Orokorrak bideratuko du, dagozkien biltzar sektorialen bidez, planetako neurrien eta gainerako herri administrazioek finkatutako politiken arteko koordinazioa; hain zuzen ere, ahalik eta koherentzia gehien izan behar dute, diru-laguntzen bidez garatzen den jarduera publikoa ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

3. Diru-laguntzen plan estrategikoek koherenteak izan behar dute Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 29. artikuluan aurreikusitako Estatuko administrazioaren urte anitzerako ministerio programekin; eta bat etorri behar dute, betiere, ekitaldi bakoitzerako zehaztutako politika ekonomikoko eta

eek: BAO-2024a142-(II-3905)

aurrekontu egonkortasuneko helburuak betetzeko aintzat hartu beharreko mugekin, halakorik egonez gero.

11. artikulua.—*Plan estrategikoen esparrua*

1. Ministerio bakoitzerako plan estrategiko bat onartuko da, zeinak bere baitan bilduko baititu bere organoen nahiz hari atxikitako gainerako erakunde publikoen diru-laguntzak.

2. Nolanahi ere, plan estrategiko bereziak onartu ahal izango dira, ministerioaz azpiko esparruetan, baldin eta haien garrantziak justifikatzen badu garapen berezitua; orobat onartu ahal izango dira baterako plan estrategikoak, ministerio esparru desberdinetako ministerioek edo organismoek parte hartzen badute haien kudeaketan.

3. Diru-laguntzen Lege Orokorraren Hamahirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoari jarraituz, diru-laguntzen plan estrategikotzat hartuko dira plan eta programa sektorialak ere, baldin eta hurrengo artikuluan adierazitako edukia barne hartzen badute.

4. Plan estrategikoek hiru urteko indarraldirako aurreikuspenak aditzera emango dituzte, kasu honetan izan ezik: dagokion sektoreak izaera berezia izanik, komenigarria izatea bestelako indarraldia duen plan estrategiko bat finkatzea.

12. artikulua.—*Plan estrategikoaren edukia*

1. Plan estrategikoek honako eduki hauek izango dituzte:

a) Helburu estrategikoak; planaren indarraldian ekintza instituzionalaren bidez lortu nahi diren eragina eta ondorioak deskribatu behar dituzte, eta lotura izan behar dute dagozkien aurrekontu programetan finkatutako helburuekin. Helburu estrategikoek merkatuari eragiten badiote, zer akats zuzendu nahi diren ere identifikatu behar da, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 8. artikuluaren 2. atalean aurreikusitako ondorioekin.

b) Jarduera plana zer diru-laguntza lerrotan zehazten den. Diru-laguntza lerro bakoitzari buruzko alderdi hauek zehaztu beharko dira:

   1) Zer eskumen arlori dagozkien eta laguntzak zer sektoretara bideratuta dauden.

   2) Laguntza horiek aplikatuz zer helburu eta ondorio lortu nahi diren.

   3) Helburuak betetzeko beharrezko epea.

   4) Aurreikusitako kostuak eta finantzaketa iturriak, non zehaztu beharko baitira herri administrazioen, Europar Batasunaren eta sustapen ekintzetan parte hartzen duten bestelako organo publiko edo pribatuen ekarpenak, baita osagarritasun printzipioa kontuan harturik diru-laguntzen onuradunei dagozkienak ere.

   5) Ekintza plana; plan horretan zehaztuko dira planean identifikatutako diru-laguntza lerroak praktikara eramateko mekanismoak, finkatuko dira Diru-laguntzen Lege Orokorraren 9. artikuluan aipatutako emakidaren oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak, ezarriko da plana gauzatzeko egutegia, eta adieraziko dira, hala dagokionean, hura kudeatzeko herri administrazioen arteko koordinazio irizpideak.

c) Finkatzen diren diru-laguntza lerroei jarraipen eta ebaluazio iraunkorrerako aplikatuko zaien araubidea. Ondorio horietarako, planaren helburuen araberako adierazle multzo bat zehaztu beharko da diru-laguntza lerro bakoitzerako; jarraipenaren arduradunek adierazle horien berri jasoko dute, aldizka-aldizka, helburu bakoitza zertan den eta helburu bakoitza betetzeko zer urrats egin diren jakiteko.

d) Aurretiko plan estrategikoen ebaluazioaren emaitzak, non agertuko baita txostenen edukia.

2. Plan estrategikoaren edukia helburuen, kostuen eta finantzaketa iturrien azalpen txosten batera muga daiteke, honako kasu hauetan:

a) Diru-laguntzen Lege Orokorraren 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera zuzenean emandako diru-laguntzak.

eek: BAO-2024a142-(II-3905)

b) Ministerioko saileko titularrak modu arrazoituan zehaztutako diru-laguntzak, betiere esku-hartze publikoko tresna modura garrantzi ekonomiko edo sozial handirik ez dutela jotzen bada.

3. Diru-laguntzen plan estrategikoek izaera programatikoa dute, eta haien edukiak ez du sortzen ez eskubiderik ez obligaziorik; haien eraginkortasuna diru-laguntza lerroak praktikan jartzeari lotuta egongo da, eta, hala, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu erabilgarritasunaren mende egongo da, besteak beste».

Beraz, diru-laguntzak banatzeko asmoa duten Udalak behartuta daude Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzera, azaldutako arautegia betez.

**Bigarrena**

Zuzenean eragitea diru-laguntzen gastu publikoa kudeatzeko eraginkortasunean eta eragingarritasunean.

**Hirugarrena**

Herritarrek diru-laguntzak eskuratzeko bidea optimizatzea, gardentasuna bermatuta, udalaren irizpideekin bat eginik eta lehia askean oinarriturik.

**Laugarrena**

Azkenik, udalaren diru-laguntzen kudeaketa arrazionalizatzea, haren plangintzan zehar-lerro modura sartuta, prozedurak sistematizatuz eta ebaluaziorako teknika aurreratuez hornituz.

II. KAPITULUA

**PRINTZIPIO OROKORRAK.**

**1. artikulua.—*Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren indarraldia***

Mungiako Udalak plan honetan aurreikusitakoari jarraituko dio 2024-2026 bitartean ezartzen dituen diru-laguntzetan.

**2. artikulua.—*Aurrekontu kontsignazioa***

Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak ezartzeko, dagozkien kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuan; era berean, diru-laguntza bakoitza emateko oinarri arautzaileak onartu beharko dira.

**3. artikulua.—*Aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko helburuak***

Diru-laguntzak ezartzeko ezinbesteko baldintza izango da aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko helburuak betetzea; hala, helburu horiei egokitu behar zaizkie, une oro, onartzen diren aurrekontu kontsignazioak eta diru-laguntzen oinarri arautzaileak nahiz deialdiak.

**4. artikulua.—*Eskubiderik ez sortzea***

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez du inolako eskubiderik sortuko balizko onuradunen alde; hala, onuradunek inola ere ezingo dute kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana bertan jasotako moduan gauzatzen ez bada.

**5. artikulua.—*Planaren printzipio orokorrak***

5.1. Publizitatea eta lehia askea; laguntzak banatzeko, dagokien aurrekontu kontsignazioa izanez gero betiere, deialdia egin beharko da aurretik, objektibotasuna, gardentasuna eta funts publikoak berdintasunez banatzen direla bermatzeko moduan; ezohiko kasuetan, zuzenean banatuko dira laguntzak.

5.2. Deialdian aldez aurretik zehaztutako irizpide objektiboen arabera ematea laguntzak, balizko onuradunek aldez aurretik horien berri badutela bermatuta.

eek: BAO-2024a142-(II-3905)

5.3. Finkatutako helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitzeko eragingarritasuna; horretarako, kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu beharko dira.

5.4. Kontrolatzea eta aztertzea diruz lagundutako jardueretan entitate eskatzaileen xedeak bat datozela berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioekin.

5.5. Modu espezifikoan, iraunkorki egiaztatzea Plan Estrategikoaren egokitasuna, eta bereziki:

a) Planaren justifikazioa, termino sozialetan.
b) Herritarren zer premiari erantzuten dien.
c) Finantza ahalmena.
d) Gai horretako udal eskumenaren azalpena.
e) Diru-laguntza lerro bakoitza ez aplikatzeari buruzko azterketa.

**6. artikulua.—*Diru-laguntzak emateko modalitateak***

6.1. Norgehiagoka erregimena izango da diru-laguntzak banatzeko ohiko prozedura. Erregimen horretan, diru-laguntzak banatzeko, oinarri arautzaileetan eta deialdian zehaztutako balioespen irizpideen arabera sailkatuko dira aurkeztutako eskariak.

6.2. Diru-laguntzak zuzenean emateko prozedura, zeinaren bidez eman daitezkeen honako diru-laguntza hauek soilik:

a) Mungiako Udalak urteko aurrekontuetan izendun modura aurreikusitakoak.
b) Lege mailako arauek ezarritakoak, kontuan harturik horiek sorrarazten dituen arauek zer emakida prozedura ezartzen duten.
c) Ezohiko izaeraz, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa dutela edo deialdia publikoa egitea zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk daudela egiaztatutako kasuei dagozkienak.

**7. artikulua.—*Gastua onartzea***

Diru-laguntzak eman aurretik, gastua onartu beharko da, dagokion fasean, Mungiako Udalaren Aurrekontua Exekutatzeko Udal Arauan eta indarrean dagoen gainerako araudi aplikagarrian aurreikusitako terminoetan.

III. KAPITULUA

**PLANAREN EDUKIA**

**8. artikulua.—*Eranskinaren edukia***

Plan honek eranskin bat du atxikita, zeinetan aditzera ematen eta zehazten diren diru-laguntzak, Udalaren kudeaketa arloka.

Ordenantza edo oinarri arautzaile bakoitzean aurreikusitakoarekin bat etorrita, eduki hauek dituzte plan honetan aurreikusitako diru-laguntzen eta laguntzen emakidek:

a) Horiek aplikatuz lortu nahi diren helburuak eta ondorioak.
b) Helburuak lortzeko beharrezko epea.
c) Zer hartzailerentzat diren.
d) Kostu aurreikusgarriak.
e) Finantzaketa iturriak.
f) Laguntzak banatzeko aplikagarri den modalitatea.

**9. artikulua.—*Eranskinen urteko aurreikuspenak***

Eranskin bakoitzak honako irizpide hauen arabera antolatzen ditu aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntzak:

a) Laguntza ematen duen erakundea eta kudeaketa arloa, hala dagokionean.

eek: BAO-2024a142-(II-3905)

b) Xedea. Irizpide honetan, diru-laguntzaren zertarakoa zehazten da; gerora, ebaluazioa egingo da horri buruz.

c) Kudeaketa modalitatea. Irizpide honek laguntza emateko aplikatu beharreko prozedurari buruzko aurreikuspena adierazten du (Norgehiagoka edo zuzeneko emakida).

d) Zenbatekoa, diru-laguntza bakoitzerako aurreikusitako kontsignazioaren arabera

IV. KAPITULUA

## DIRU-LAGUNTZEN ONURADUNAK ETA GAIAK

**10. artikulua.—*Onuradunak***

Udalak pertsona edo entitateei emango dizkie diru-laguntzak, erabilera publiko edo interes sozialeko jarduerak sustatzeko edo tokiko eskumeneko xede publikoak lortzeko.

**11. artikulua.—*Arloak***

Mungiako Udalak honako kudeaketa arlo hauetan emango ditu diru-laguntzak urtero, plan honen eranskinetan zehaztutako Udal Aurrekontuaren sailkapen organikoarekin bat etorrita:

| Programa organikoa | Deskribapena |
|---|---|
| 04 | Euskera |
| 22 | Hirigintza Diziplina |
| 30 | Gizarte Ekintza eta Berdintasuna |
| 42 | Kirola |
| 43 | Kultura |
| 44 | Euskaltegia |
| 50 | Sustapen ekonomikoa |

V. KAPITULUA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

**12. artikulua.—*Plan Estrategikoaren exekuzioaren jarraipena eta helburuak betetzeari buruzko txostena***

1. Kudeaketa arlo bakoitzak txosten bat egingo du urtero, berak kudeatutako diru-laguntza lerroek aurreko urtean izandako emaitzen eta inpaktuaren berri emanez

2. Planaren indarraldia amaitutakoan, hurrengo plana osatu aurretik, arlo bakoitzak txosten bat aurkeztu beharko dio Informazio Batzorde Bereziari, honako alderdi hauen berri emanez: zenbateraino bete den plana, helburuak eta lortu nahi ziren emaitzak lortu diren, eta ondorioak, diru-laguntzen hurrengo plan estrategikoa prestatzeko iradokizunekin, hala dagokionean. Informazio Batzorde Bereziak Diru-laguntzen Plan Estrategikoari buruzko irizpena edo txostena eman beharko du.

**13. artikulua.—*Urteko txostenaren helburuak eta edukia***

1. Plan Estrategikoaren jarraipenaren eta ebaluazioaren helburu nagusiak dira:

a) Indargabe utzi diren edo lortu beharreko helburuak lortzeko eraginkorrak ez diren diru-laguntza lerroak aldatzea edo eguneratzea.

b) Indarrean jarraitzen duten ildoen zenbatekoak eguneratzea, onartutako urteko aurrekontuaren arabera.

c) Premia berriak antzematearen ondoriozko edo, betiere, aldez aurretik finkatutako helburuak lortzeari begira beharrezko jotako jarduera ildo berriak biltzea.

eek: BAO-2024a142-(II-3905)

2. Urteko jarraipena egiteko, adierazleen koadro hau landu da, bi motatako adierazleak kontuan hartuta:

a) Orokorrak: aintzat hartutako diru-laguntza ildo guztien alderdi komunak neurtzen dituzten adierazleak dira.

b) Espezifikoak: sail honetan eskumen esparru jakin batzuetarako adierazle osagarriak sartzen dira, ezaugarri bereziak dituztela-eta informazio xeheagoa eskatzen duten esparruetarako.

*Adierazle orokorrak*

— Helburu estrategiko bakoitzean aurrekontuan adierazitakotik exekutatutako ehunekoa, guztira.

— Urtean emandako diru-laguntzen kopurua.

| Esparrua | Adierazle Espezifikoak |
|---|---|
| Gizarte Ekintza | — Programa bakoitzak arreta ematen dien pertsonen kopurua (adin, sexu eta barrutiaren arabera bereizita).<br>— Diruz lagundutako entitate/elkarteen kopurua.<br>— Onuradunen kopurua.<br>— Lehenetsitako sektoreetara bideratutako diru-laguntzen ehunekoa.<br>— Diru-laguntzen banaketaren ehunekoa, eremu geografikoen arabera.<br>— Genero ikuspegia barne hartzen duten programen ehunekoa. |
| Ekonomia eta hiri sustapena | — Babesa eman zaien ekimenak, guztira.<br>— Ekitaldietan parte hartu dutenen kopurua, guztira. |
| Enpresa sustapena | — Kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko planetan parte hartu duten ETE/saltokien kopurua. |
| Kultura | — Ekitaldi eta jardueretan parte hartu dutenen kopurua, guztira. |
| Hezkuntza | — Programa bakoitzean parte hartu duten eskola umeen kopurua (ikastetxeka eta ikasturteka). |
| Euskara | — Euskaraz emandako zerbitzuen kopurua, guztira, tipologiaren arabera. |
| Kirola | — Diru-laguntza lerro bakoitzean emandako laguntza aginduen kopurua.<br>— Lerro bakoitzak laguntzetan banatutako zenbatekoa. |
| Enplegu sustapena | — Sortutako enpleguen kopurua.<br>— Enpresetan praktikak egin dituzten parte-hartzaileen kopurua. |

## VI. KAPITULUA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN FINANTZA KONTROLA

### 14. artikulua.—*Finantza kontrolak*

1. Diruz lagundutako programa exekutatzeko epea amaitutakoan, laguntza eman duen arloari dagokio diruz lagundutako programen hasierako kontrola egitea; hain zuzen ere, diru-laguntzen zenbatekoak zer datatan ordaindu diren aztertuko du, espediente bakoitzean aurreikusitako datekin alderatzeko, eta orobat aztertuko du ordainketa egiteko zer bide erabili den, baita onuradun bakoitzari diru-laguntza lortzeko eskatutako alderdiak behar bezala justifikatuta dauden ere

2. Kontrol hori amaitutakoan, diruz lagundutako programen finantza kontrola egingo da, Udal Kontu-hartzailetzaren txostenaren bidez; txosten hori diru-laguntza likidatu aurretik egingo da, Aurrekontua Exekutatzeko Udal Arauan eta indarrean dagoen gainerako araudi aplikagarrian aurreikusitakoarekin bat etorrita

eek: BAO-2024a142-(II-3905)

VII. KAPITULUA

**PLANA ALDATZEA**

**15. artikulua.—*Plana aldatzea***

1. Diru-laguntzen Plan Estrategiko honetan agertzen ez diren diru-laguntzak emateko, Plana aldatu beharko da, aldez aurretik Udalbatzak onespena emanda.

2. Edonola ere, ez da Plana aldatzeko premiarik izango, baldin eta egin beharreko aldaketa esleitutako zenbatekoari besterik ez badagokio eta gainerako osagaietan inolako aldaketarik egin behar ez bada. Esleitutako zenbatekoa Udalbatzak bere eskumenak gauzatuz onetsitako urteko Udal Aurrekontuan zehaztuko da. Dagokion kudeaketa arloak behar bezala egiaztatu beharko du espedientean.

AZKEN XEDAPENA

Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau Udalbatzaren Osoko Bilkurak onartu zuen 2024ko ekainaren 28an egindako bilkuran, eta 2024ko ekainaren 29an jarriko da indarrean.

eek: BAO-2024a142-(II-3905)

ERANSKINA

**PLANAREN INDARRALDIRAKO DIRU-LAGUNTZAK, GAIKA.**

**1. Gizarte ekintza eta berdintasun arloak izapidetutako diru-laguntzak**

1. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: Haurrei harrera egiteko diru-laguntza.

— Onuraduna: Harrera familiak.

| | |
|---|---|
| Helburuak | Beste herrialde batzuetatik datozen eta egoera ahulean dauden (Saharako, Errusiako, Ukrainako, Bielorrusiako errefuxiatuen kanpamenduak, etab.) haurren aldi baterako harreran (oporraldietan) parte hartzen duten familiei diru-laguntzak emateko diru-laguntzak ezartzea. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Beste herrialde batzuetatik datozen haurrak hartzen dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea. |
| Urteko zenbatekoa | 4.000,00 euro. |
| Funtzionala | 2301 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Norgehiagoka. |

2. Diru-laguntza lerroa

— Xedea: Gazteek etxebizitza alokatzeko laguntzak.

— Onuraduna: Gazteen alokairua.

| | |
|---|---|
| Helburuak | Mungiako gazteek etxebizitza alokatzeko udal laguntzen helburua da udalerrian erroldatutako 35 urtetik beherako herritarrei alokairuko etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Mungiako gazteen emantzipazioa bultzatzea, etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntzak emanez. |
| Urteko zenbatekoa | 25.000,00 euro. |
| Funtzionala | 2316 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Norgehiagoka |

3. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: Gorabide elkartearen urteko programa.

— Onuraduna: Gorabide (IFK: G48078380).

| | |
|---|---|
| Helburuak | Elkarte hau irabazi asmorik gabeko talde bat da, honako printzipio honetan oinarritua: «Ezgaitasun intelektuala duten pertsonek gizartearen parte behar dute izan, eta gainerako herritarren oinarrizko eskubide berberak dituzte».<br>Gorabideren azken buruko xedea eta elkartearen jardunaren ardatza da edozein arrazoi dela medio ezgaitasun intelektuala duten pertsonei gizarteko kide diren heinean dagozkien eskubideen defentsa egitea.<br>Helburu hori lortzeko, Gorabideren ikuspegitik, hiru ildo osagarri hauek landu beharra dago:<br>— Gizartea kontzientziatzea, ezgaitasun intelektuala duten pertsonak onar ditzan eta haien eskubideak aitortzen eta gauzatzen lagun dezan.<br>— Kasu bakoitzerako banakako laguntzak eskaintzea eta oinarri komunitarioko zerbitzu orokorrak sor daitezen sustatzea, ezgaitasun intelektuala duten pertsonen bizi kalitatearen etengabeko hobekuntza eta ongizatea lortzeari begira.<br>— Zuzeneko zerbitzuak sortzea, egoki iritziz gero. |
| Lortu nahi diren ondorioak | — Ezgaitasun intelektuala duten pertsonak gizarteratzea, bizitzako etapa guztietan.<br>— Ezgaitasun intelektuala duten pertsonen gaitasunen erabateko garapenean eta bizi segurtasunean laguntzea.<br>— Ezgaitasun psikikoa duten pertsonak laneratzea, norberaren aukeren arabera. |
| Urteko zenbatekoa | 15.800,00 euro. |
| Funtzionala | 2312 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Izenduna. |

4. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: Jubilatu eta pentsiodunentzako urteko jarduera programa.

— Onuraduna: «Danontzat» jubilatu eta pentsiodunen elkartea (IFK: G48261226).

| | |
|---|---|
| Helburuak | Elkartea irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta hauxe du helburu nagusia:<br>— Hirugarren adinaren balioak nabarmentzea eta garatzea.<br>— Bazkideek hainbat arlotan –kultura, olgeta, aisia-okupazioa, etab.– dituzten premiak aztertzea eta Elkarteak eskura dituen baliabide guztiak erabiltzea premia horiei erantzuteko, xede hori lortzeko lagungarri izan daitezkeen orotariko jarduerak antolatuz.<br>— Eskumena duten erakunde eta organismoen inplikazioa eskatzea, eta, bazkideekin batera, haien arazoak aztertzea eta horiei irtenbidea ematen saiatzea.<br>— Bazkideen ideologia errespetatzea; horretarako, elkarteak eragotzi egiten du elkartearen esparruan inolako jarduera politikorik egin dezaten. |
| Lortu nahi diren ondorioak | — Harrera eta aisiarako aukera bat eskaintzea Mungiako jubilatu eta pentsiodunei.<br>— Jubilatu eta pentsiodunen arteko bizikidetza hobetzea, ahal den heinean.<br>— Laguntza eskatzen dioten tokian lankidetzan jardutea, Mungiako Udalarekin, udalerrian erregistratutako elkarteekin nahiz Mungialdeko eskualdeko jubilatu eta pentsiodunen elkarteekin batera. |
| Urteko zenbatekoa | 59.500,00 euro. |
| Funtzionala | 23150 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Izenduna |

5. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: Beste proiektu solidario batzuetarako diru-laguntza.

— Onuraduna: Udalerriko herritarrak.

| | |
|---|---|
| Helburuak | Aurreikusten ez diren eta Mungiako herritarren edo udalerriko elkarteen onurarako diren izaera solidarioko kausak edo ekimenak ekonomikoki laguntzea. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Udalaren laguntza ekonomikoa ahalbidetzea udalerrian helburu solidarioa duten edo auzotarren onurarako diren erakundeen edo elkarteen proiektu edo ekimenei. |
| Urteko zenbatekoa | 15.941,00 euro. |
| Funtzionala | 2319 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Norgehiagoka |

6. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: Gurutze Gorriaren urteko jarduerak sustatzea.

— Onuraduna: Gurutze Gorria (IFK: Q2866001G).

| | |
|---|---|
| Helburuak | Gurutze Gorriaren azken buruko helburua da Gurutze Gorriaren eta Ilargi Erdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduaren oinarrizko printzipioak zabaltzea eta aplikatzea. Eta Gurutze Gorriaren xede instituzionala da honako helburu espezifiko hauek lortzera begirako jarduera garatzea:<br>— Bakea bilatzea eta sustatzea, baita nazioko eta nazioarteko lankidetza bilatzea eta sustatzea ere.<br>— Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa hedatzea eta erakustea.<br>— Oinarrizko giza eskubideak zabaltzea eta defendatzea.<br>— Genevako Hitzarmenetan eta Espainia parte den gainerako protokoloetan aurreikusitako esparruetan biktima zibil eta militar guztien alde esku hartzea gatazka armatuko egoeretan, eta esku-hartze horietan osasun zerbitzu publikoen laguntzaile modura aritzeko prestatzea bake garaian.<br>— Sufritzen ari diren pertsona eta taldeei arreta ematea, giza samina prebenitu eta arintzeko.<br>— Istripu, hondamendi, hondamendi publiko, gatazka sozial, gaixotasun, izurri eta antzeko beste arrisku edo ezbehar kolektibo eta gertaeretan, gorabehera horien eraginpeko pertsonak babestea eta laguntzea, eta gorabehera horiek eragindako kalteei aurrea hartzea, horretarako beharrezko jardueretan parte hartuz, legeetan eta dagokien nazio edo lurralde planetan ezarritako moduan.<br>— Solidaritatea, garapenerako lankidetza eta gizarte ongizatea, oro har, eta asistentzia eta gizarte zerbitzuak sustatzeko ekintzak garatzea eta horietan lankide modura parte hartzea, arreta berezia emanez gizarteratzeko zailtasunak dituzten talde eta pertsonei.<br>— Osasun programak eta izaera altruista bereziagatik osasun publikorako komenigarrien irizten zaien ekintzak sustatzea eta horietan parte hartzea.<br>— Pertsona fisiko eta juridiko, publiko eta pribatuek erakundean modu boluntario eta desinteresatuan parte har dezaten bultzatzea, erakundearen helburuak betetzera bideratutako jardun eta ekimenetan.<br>— Haur eta gazteek erakundearen jardueretan parte har dezaten bultzatzea eta aditzera ematea Gurutze Gorriaren eta Ilargi Erdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduaren, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta oinarrizko giza eskubideen printzipioak, baita bakearen, elkarrekiko errespetuaren eta pertsona eta herri guztien arteko elkar aditzearen idealak ere.<br>— Aurreko xedeak lortzera begirako prestakuntza jarduerak garatzea |

| | |
|---|---|
| Lortu nahi diren ondorioak | Gurutze Gorriak, bere xede instituzionalaren ildotik, xede espezifikoei loturiko orotariko jarduerak bideratu ahal izango ditu, eta honako zerbitzu hauek eman ahal izango ditu horretarako:<br>— Ospitaleratzea, osasun laguntza eta errehabilitaziorako asistentzia, etxekoa nahiz mugikorra.<br>— Osasun garraioa eta garraio egokia, mugikortasun mugatua duten pertsonentzat.<br>— Prebentzioa, zaintza eta arreta, arrisku egoeretan, kultura eta kirol ekintzetan, hondartza eta barne uretan.<br>— Salbamendua, sorospena eta itsas laguntza.<br>— Telelaguntza eta etxez etxeko laguntza.<br>— Arlo humanitarioko, osasun arloko, arlo sozialeko eta ingurumen arloko prestakuntza.<br>— Arreta zentroak, eguneko zentroak, gizarte zentroak eta egoitzak, larrialdiak koordinatzeko zentroak kudeatzea; esku-hartze sozialeko programak kudeatzea.<br>— Premia, gaixotasuna, sufrimendua, bazterketa, ezgaitasuna eta abar dituzten pertsonentzako gizarte laguntza.<br>— Eta, oro har, erakundeak bere xedeak hobeto betetzen laguntzeko garatzen duen edonolako beste edozein zerbitzu.<br>Bere jarduera humanitarioan, Gurutze Gorriak edonori emango dio arreta, inolako bereizketarik egin gabe sexu, adin, arraza, sorterri, erlijio, sinesmen eta gainerako ezaugarri pertsonal edo sozialak direla tarteko, eta, betiere, nazioarteko hitzarmenetan ezarritako arauak betez. |
| Urteko zenbatekoa | 19.900,00 euro. |
| Funtzionala | 3120 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Izenduna |

7. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: Elikagaiak biltzeko eta banatzeko laguntza.

— Onuraduna: Elikagai Bankua (IFK:G48755433).

| | |
|---|---|
| Helburuak | Bizkaiko Elikagai Bankuak merkaturatu ezin diren baina kontsumorako egoki diren elikagaiak biltzen ditu Mercabilbaon eta beste elikadura enpresa batzuetan, eta premia duten pertsonei banatzen dizkie jaki horiek Bizkaiko zenbait udalerritan, Mungian, esaterako.<br>Helburu nagusi hauek ditu, besteak beste:<br>— Xahuketari eta goseari aurre egitea, ingurune hurbilean: gainekoizpenetik eratorriak dira, nagusiki, elikagaiak.<br>— Doakotasuna nagusitzea: doan jasotzen eta banatzen dira elikagaiak.<br>— Bidezko banaketa bermatzea: elikagaiak ongintza entitate homologatuen bidez banatzen dira, eta, entitate horiek premia duten pertsonekiko harreman zuzena dutelarik, elikagaiak azken hartzailearen eskuetara iristen direla bermatzen dute.<br>— Boluntarioen bidezko koordinazioa eta kudeaketa. Gaur egun, 100 boluntarioren lankidetza eskuzabalari esker bideratzen du elkarteak bere lana. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Oinarrizko elikagaiak banatzea Mungian premia larrienak dituzten familiei. |
| Urteko zenbatekoa | 2.400,00 euro. |
| Funtzionala | 2312 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Izenduna |

8. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: Emakumeen parte-hartzea sustatzeko programak.

— Onuraduna: DIZ- DIZ Mungiako emakumeen Elkartea. (IFK:G48771059).

| | |
|---|---|
| Helburuak | Mungiako DIZ-DIZ Emakumeen Elkarteak, bere ekintzen bidez, genero-indarkeriaren aurkako borrokan, emakumeen ahalduntzean, haien eskubideak erabat baliatzean eta genero-ekitatea lortzean laguntzen du, ezinbesteko baldintzak baitira justizia sozialera eta giza garapen jasangarrira iristeko. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Elkarteak hogeita bost urte daramatza jarduera sozio-kulturalen eskaintza zabala eta anitza antolatzen eta garatzen, emakumeen garapen integrala lortzeko eta gure udalerriko erakundeetan aktiboki parte har dezaten |
| Urteko zenbatekoa | 3.400,00 euro. |
| Funtzionala | 2312 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Izenduna |

9. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: Cáritasen proiektuak diruz laguntzea.

— Onuraduna: Cáritas (IFK: R4800309I).

| | |
|---|---|
| Helburuak | Cáritas Mungiak garrantzi handiko lana egiten du gure udalerrian prekarietate egoeran edo gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei laguntzen eta haien gizarte sustapena babesten.<br>29 boluntarioren doako lanari eta eskuzabaltasunari esker gauzatzen du konpromiso hori; hain zuzen ere, boluntario horiek beren denbora eta ahaleginak jartzen dituzte askotariko arrazoiak direla medio premia duten pertsonei laguntzeko.<br>Pertsona horien solidaritatea, saiamena eta eskuzabaltasuna funtsezkoak dira pertsona askori mundu bidezkoagoa eta aukera gehiago eskaintzeko.<br>Cáritas Mungiak askotariko arrazoiak direla medio egoera bereziki ahulean edo gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen harrera eta arreta primariorako eta laguntzarako eginkizunak betetzen ditu. |

| | |
|---|---|
| Helburuak | Gainera, bere jarduera ez da mugatzen krisiak eragindako premia larrienei erantzutera (elikadura, etxebizitza, enplegurako sarbidea…). Hortik harago, pertsonei hurbiltasuna transmititzen, haien duintasuna aldarrikatzen, haien premiei erantzuten eta haien ahalmenak agerian uzten ahalegintzen da.<br>Cáritas Mungiak lotura estua du bestelako entitate batzuekin, hala nola Gizarte Zerbitzuen Mungialdeko Mankomunitatearekin, eta laguntza, sustapen eta sentsibilizazio sare sendo bat sortu du horiekin eta gizartearekin batera.<br>Hala, hastapeneko informazioa eman, kasuak bideratu eta gizarte zerbitzuekiko koordinazioa eskaintzen du, baita larrialdiko unean uneko laguntzak, etxebizitza aurkitzeko laguntza, etab. ere.<br>Hain zuzen ere, baliabiderik gabeko eta komunitate eta familia loturarik gabeko pertsonei begirako programa bat eratu du hori lortzeko. Programa horren bidez, banakako ibilbidea lantzeko ekimenak garatzen ditu, barne harturik oinarrizko premiei erantzuteko (bizitokia, elikadura, osasuna eta higienea, etab.) nahiz pertsona gisa suspertzeko eta gizarte bakardadea saihesteko.<br>Bestalde, LAGUNDU PROIEKTUA garatzen ari da Cáritas Mungia, aisialdian adinekoei laguntzeko, talde horren bakartzea saihestearren, ahal den neurrian.<br>Herriko boluntarioen bidez garatzen ari da programa, eta haren bidez orobat lortu nahi da gizarte edo/eta familia arloan zailtasunak dituzten adinekoen bizi kalitatea hobetzea, helburu hauek betez:<br>— Autonomia pertsonala sustatzea<br>— Norberaren etxean eta ingurunean irautea<br>— Harremanak lantzea<br>— Baliabide komunitarioetarako sarbidea erraztea<br>— Mendekotasunak dituzten adinekoak zaintzen dituzten familiei laguntzea<br>Zergatik ari da adinekoen taldearekin lanean?<br>— Adinekoek gero eta premia larriagoak dituztelako, bereziki nork lagundu ez duten kasuetan.<br>— Bakardadea gero eta arazo larriagoa delako eta agerian uzten duelako zein garrantzizkoa den hurbileko eta doako harremanak izatea.<br>— Adineko ahulenen egoerak ez duelako oihartzun handirik gizartean. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Gure herriko boluntarioek aurrera eramaten duten programa honen bidez, gizarte edo/eta familia arloan zailtasunak dituzten adinekoen bizi kalitatea hobetzea lortu nahi da, helburu hauek betez:<br>— Autonomia pertsonala sustatzea<br>— Norberaren etxean eta ingurunean irautea<br>— Harremanak lantzea<br>— Baliabide komunitarioetarako sarbidea erraztea<br>— Mendekotasunak dituzten adinekoak zaintzen dituzten familiei laguntzea.<br>Horretarako askotariko ekintzak gauzatzen dituzte, hala nola: konpainia, elkarrizketa, entzutea, paseatzea, izapideak egiteko laguntza, gizarte baliabideei buruzko informazioa ematea, inguruko jardueretan parte hartzeko laguntza, etab. |
| Urteko zenbatekoa | 4.200,00 euro. |
| Funtzionala | 2312 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Izenduna |

10. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: Saharakide Elkartearen proiektuetarako laguntzak.

— Onuraduna: Sahararen aldeko elkartea (IFK: G95439063).

| | |
|---|---|
| Helburuak | 2000. urteaz geroztik, Gueltako dairarekin anaituta dago Mungiako Udala; hala, anaitasun horretan hitzartutakoaren arabera gauzatzen du Mungiak Saharareakiko lehentasunezko erlazioa.<br>2001az geroztik, saharar haurrek oporrak Mungiako familietan igarotzeko programa antolatzen da.<br>2006an, saharar haurrak etxean hartzen zituzten familiek Saharakide Elkartea sortu zuten, Tindoufen (Aljeria) errefuxiatutako sahararren alde lan egiteko.<br>Hiru esparru hauek lantzen ditu elkarteak, nagusiki:<br>— Oporrak: programa honen bidez haurrei oporraldi ahalik eta atseginena eskaintzea da asmoa. Izan ere, kontuan hartu beharra dago oporraldia igarotzera etortzen direla; eta errefuxiatu esparruetatik irteten diren lehen aldia dela askorentzat, eta, beraz, ordura arte ezezagunak zituzten hainbat errealitatetara hurbiltzeko unea izaten dela.<br>— Osasuna: komeni da, eta, askotan, beharrezkoa ere bada, haurrei nahiz haien laguntzaileei osasun azterketa egitea eta, hala dagokionean, arreta jasotzeko, tratamendua egiteko eta osatzeko bidea erraztea.<br>— Sahararren egoeraren berri ematea: programa honen funtsezko helburuetako bat da herritarrei ahalik eta informazio gehien ematea saharar herriaren egoerari, kulturari, erlijioari eta erbestealdiaren arrazoiei, bizi baldintzei, lurraldea berreskuratzeko aukerei eta abarri buruz.<br>Horregatik komeni da beste haur eta heldu batzuekiko trukea bultzatzea familietan; jarduera irekiak egitea udalerrian; programaren berri ematea eta talde, elkarte eta boluntarioak hartara biltzea, ekimenak abian jartzen eta aurrera eramaten lagun dezaten. |
| Lortu nahi diren ondorioak | — Mungiako eta Saharako herrien arteko solidaritatezko harremana sendotzea, askotariko lankidetza proiektuen bidez: saharar haurren Mungiako egonaldia, saharar emakumeen formazio integrala, beste elkarte edo erakunde batzuekiko lankidetza eta gure gizartea saharar herriaren historia, kultura, egoera politiko nahiz sozialari buruz sentsibilizatzea.<br>— Mungiako udalerriaren lurralde esparruan gauzatzen ditu, nagusiki, bere funtzioak.<br>Helburuak lortzeko, zuzeneko lankidetza proiektu zehatzak bideratzen ditu elkarteak, lankidetza hori ulerturik justiziazko oinarrizko neurri modura, ez karitate gisa, eta, betiere, saharar herriaren ordezkariekiko lankidetza estuan; hain zuzen ere, elkarteari saharar ordezkariek ematen diete beren premien berri eta haiek aditzera ematen diote aurkeztutako proiektuak bideragarriak diren edo ez. Proiektuak elkarteko kideek aurrera eramaten dituzte, boluntario gisa eta musu truk. |
| Urteko zenbatekoa | 810,00 euro. |
| Funtzionala | 2319 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Izenduna. |

11. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: CIMUNGIAren urteko jarduera programa.

— Onuraduna: «CIMUNGIA», Mungian bizi diren munduko herritarren elkartea (IFK: G95666046).

| | |
|---|---|
| Helburuak | Mungian bizi diren munduko herritarren elkartearen xedea da Mungiara etorritako atzerritarren integrazioa sustatzea.<br>Horretarako, kulturartekotasuna sustatzeko askotariko jarduerak antolatzen ditu eta askotariko jardueretan parte hartzen du: «Munduko Arrozak», «Kandela eta Farolen Jaia», Senegaldar Gastronomiaren Jaia, etab. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Mungian bizi diren atzerritarren integrazioa sustatzea, udalerriko bizitza sozial eta kulturalean parte har dezaten bultzatuz.<br>Kulturartekotasunari loturiko jarduerak antolatzea, Mungiako herritarrek udalerriko beste kultura batzuk ezagutzeko eta haietara hurbiltzeko. |

eek: BAO-2024a142-(II-3905)

| | |
|---|---|
| Urteko zenbatekoa | 810,00 euro. |
| Funtzionala | 2312 |
| Finantzaketa | Funts propioen bidez finantzatuko da, aurrekontuko IV. kapituluaren kargura. |
| Emakida prozedura | Diru-laguntza mota: Izenduna |

12. *Diru-laguntza lerroa*

— Xedea: Senegaldarren integrazioa sustatzea.

— Onuraduna: SEN MUNGI elkartea (IFK: G95864252).

| | |
|---|---|
| Helburuak | Elkartearen helburua da jatorriz senegaldarrak izanik Mungian bizi diren pertsonen integrazioa sustatzea eta haien kultura erakustera eta hurbiltzera bideratutako jarduerak aurrera eramatea. |
